

GIZARTEA ▶

Ehundik gora lagun Oiangu Egunean

Parkearen «izaera publikoa eta naturala» aldarrikatu dute; ibilaldi gidatua, jokoak eta kontzentrazioa egin zituzten atzo

MAIDER DEL OLMO

Oianguko parkearen «izaera publikoa eta naturala» aldarrikatzeko jaia egin zuten zuten atzo Ordizian. Ehundik gora lagun bildu ziren, Oiangu Bizirik eta Publikoa plataformak egin-dako deiar erantzunez. Goizeko 10:00etan zuten jarrira hitzordua plazan. Eta jendea orduan azaldu zenez segituan hartu zuten Oiangu bidea. Goian geldialdi laburra egin zuten arnasa hartzeko, justua, helduek ibilaldi gidatuari ekin zioten berehala-eta. Helburua parkearen natur ondarea ezagutzeko zen. Umeak, bitartean, hariztira joan ziren jolastera. Gaztekoak zain zituzten, prestatutako jokoetan aritzeko.

Ibilaldian Edurne Huesa irakasleak eta Oiangu Bizirik plataformako kideak egin zituzten gidari lanak. Xehetasun guztien azaldu zuten parkearen na-

tur ondarea. Pauso bakoitzean zein zuhaitzen aurrean zeuden azalduz edo norabidea ez gatzeko aholkuak emanez. Jendeak arretaz segitu zituen azalpenak, noizean behin galderak eginez. Oiangu inguratutakoak atzo parkeaz eta ingurumenaz gehiago jakiteko aukera izan zuten.

Goizeko lehenengo orduan antolatzaileek aurreneko balorazioa egin zuten. Ehun lagun inguru ari zirela parte hartzen esan zuten. Dena dela, jendeak iristen jarraitzen zuten.

Plazan kontzentrazioa

Goiza Oiangu pasa ondoren herrirako bidea hartu zuten. Plazan bildu eta kontzentrazio isila egin zuten, Oiangu Bizirik eta Publikoa lemarekin, izen bereko plataformak deituta. Elkarretaratzean proiektua bertan behera uzteko eskatu zio-

ten Ordiziako udalari bildutako herritarrek.

Oianguko egitasmoa garrantzitsua dela uste du plataformak. Horregatik proiektua Udaleria bueltatzeko eskaera: «Ez du Ordiziako eta Goierriko behar duten onura sortzen, ezta ingurumen eta gizarte balioak garrantzitsua ere, haien arabera. «Ura ondasun publiko eta urria izanik ere, ur asko erabiliko da golf-zelaia mantentzeko eta igerilekura. Proiektuan ez da horri buruz daturik eman. Bestalde, ez da neuririk aurrikusten putzu eta zuhaitzia babes-teko: haritzak, pagoak, urkiak...». Natur balio hori dena ezagutzeko parada izan zuten atzo. Eta jakinarazi zuten proiektuak aurrera eginez gero zuhaitzak bota egingo dituzte, pista eta aparkaleku berriak egiteko, eta soinu- eta argi-poluzioak sortuko dira.



Haurtzako jokoak. Gaztekoekin batera hainbat jokotan aritu ziren umeak Oiangu, atzo; hala nola, marrazten, zaku karreran, ...Gurasok ere parte hartu zuten. MAIDER DEL OLMO



Elkarretaratzea. Plazan, eguerdian, kontzentrazioa egin zuten udaltxe aurrean dozenaka lagunek, Oiangu Bizirik eta Publikoa plataformak deituta. Gerturatutako herritarrek Oianguko egitasmoa bertan behera uzteko eskatu zuten aho batez, atzo. ARKAITZ APALATEGI



Ibilaldi gidatua. Parkearen natur balioa ezagutzeko ibilaldia egin zuten herritarrek. Edurne Huesa plataformako kidea aritu zen gidari lanetan xehetasun eta azalpen denak ematen. MAIDER DEL OLMO

iragarki laburrak ▶

LAN-POSTUAK

Gidariak.

Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzan. Astean 35 ordu. Informa zaitetz: 943 22 46 85.

Suhiltzaileak.

Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean

bi lanegun. Azken lanpostuak.

Informazioa doan: 943 22 46 85.

Administrari laguntzaileak.

Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 8:00-15:00.

Informazioa doan: 943 22 46 85.

Herri Haurtzaindegiak.

Honako postu hauek bete behar dituzte: haurtzainak, hezitzaileak. Informazioa doan: 943 22 46 85.

Sukaldeko laguntzaileak.

zerbitzariak. Hurrengo deialdiak: herri

erakundeak.

Informa zaitetz: 943 22 46 85.

Peoiak, ofiziozko langileak.

Lanpostu finkoak: igeltseroak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko.

Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik, 15:00etara. Informazioa doan: 943 22 46 85.

Laborategi plazak libre: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzan. Informazioa doan: 943 22 46 85.